

**Bidebieta**

# Estolda txikiegiak, zuhaitz handiegiak

**Bidebietako auzo elkar-  
tekoak kexu dira, maiz  
uholdeak izaten baitira  
auzoko biribilgunean.  
Auzoan estolda nahiko-  
rik ez dagoela diote. Ki-  
matu gabeko zuhaitze-  
kin ere ez daude gustu-  
ra auzotarrak.**

**S**an Luis Ikastetxera eta Herri Ametsa Ikastolara doan aldapa hasieran, Salvador Allende parkean eta frontoiaren inguruan, estolda handiagoak jarri beharko litzukete, auzo elkartearen iritziz. Hori egin ezean, orain ar-

te bezala, euri asko ari duen bakoitzean, auzoko biribilgunean uholdeak izango direla uste dute. Izan ere, egungo estoldak ez dira gauza Mendiola-tik jaisten den euri-ura jasotzeko. Auzotarrek diotenez, *"estolda gutxi daude auzoan, eta bakan batzuk kenduta, gainerako guztiak txikiegiak dira. Biribilgunearen inguruan arazoa are larriagoa da: oso estolda gutxi daude, eta daudenak segituan hostoz betetzen dira. Behin baino gehiagotan, auzotarrek etxetik jaitsi behar izaten dugu estoldak irekitzeko"*. 2002ko abuztu amaieran izandako uholdeek kalte ugari eragin zituzten biribilgunearen inguruan. Ho-



Euri-ura jasotzeko estolda handiagoak behar direla diote auzo elkarteak.

rren haritik, biribilguneetik gertuen dagoen etxeorrazteko bizilagunek porlanezko horma txoa egin zuten, euria egiten duenean, ura etxearen azpialdeko aparkalekura sar ez dadin.

**Auzoa, ilun**

Zuhaitzek ere buruhausteak eragiten dituzte. Orain dela aste gutxi, batik bat Juan Karlos Gerra kalean eta zahar etxearen inguruan, zuhaitz batzuk kimatu eta beste batzuk moztu zituzten. Auzo elkarteontzat, ordea, egindakoa ez da nahikoa: *"Auzoan gehien bat zumardiak eta platanondoak ditugu. Platanondoak oso azkar hazten dira, eta batzuk ez dituzte oraindik kimatu, nahiz eta aspaldi landatu zituzten"*. Auzo elkarteak dakartzan ondorioetako bat aipatu digute. *"Udan adibidez, zuhaitzak hostoz gainezka daudenean, argitasuna kentzen dute. Gauean farolen argiek ere ez dituzte hainbat leku argitzen, eta ilun-ilun geratzen dira"*.

**Bulegoen ordez, etxebizitzak**

Argazkiko eraikina Gaiztarroko Zumard pasealekuan dago, eta barnealdetik eraidatu berri dute. Eraikinean lanak egin aurretik Ramon Vizcaino enpresaren bulegoak zeuden bertan. Aipatu bulegoak kendu dituzte eta horien ordez 16 etxebizitza egokitu dituzte.



Auzotarrek zenbait zuhaitz aspaldi ez dituztela kimatu salatu dute.

**Frontoiko sarea konponduta**

Frontoiko sarea igotzeko eta jaisteko mekanismoa konpondu berri dute. Zenbait egunez mekanismoa hondatuta egon zen, eta frontoiaren erabiltzaileak kexu ziren pilotak errepedieraino iristen zirelako. Gogoa izan dena dela, Kiroletako Udal Patronatuak sarea aldatu nahi duela. Egungoaren ordez, metalezko hesia jarri nahi dute behaldeen eta nylonezkoa goialdean.




Alberto Elosegi

**"XX. Mendeko Poesia Kaiarak"**

• SUSA • Askoren artean • Koldo Izagirre

Joan den astean aurkeztu zituen Susa argitaletxeak XX. mendeko Poesia Kaiarak antologia-  
ren azken 10 aleak. Jon Mirande, Mikel Lasa, Joan Mari Irigoien, Joseba Sarrionandia, Tere  
Irastorza, Rafa Eiguren, Juan Kruz Igerabide, Jon Arano, Luigi Anselmi, Karlos Linazasoro  
eta Juanjo Olasagarre dira azken kaiera hauetako protagonistak. Koldo Izagirrek apailduta-  
ko bilduma honetan 40 poeten 1.119 poema plazaratu ditu Susak.



**"Elearen lainoa"**

• ELKAR • Olatz Zugasti • 12 abesti

Olatz Zugasti kantari herentiarak "Elearen lainoa" izeneko hirugarren diskoa plazaratu  
berri du. Ohi bezala, kantugintza tradizionalean oinarritu da Zugasti, pop kutsuko balada  
eztrak eta folk ukituak gehituz. Diskoko hamabi kantuak Zugastik sortuak dira, hitzetan dago-  
kienez. Henriette Airek eta Ixaro Bordak idazitako hainbat poema daude.



**"Bazterreko ahotsa"**

• ELKARLANEAN • Ana Urkiza • Poesia • 104 orrialde

Ana Urkiza idazleak "Bazterreko ahotsa" izeneko poesia liburua kaleratu du. Emakume iza-  
tearen kontzientziatik abiatzen da poema-bilduma hau. Estilo zuzen eta zorrotza darabil egi-  
leak, bere gordinean biluzia eta proposamenetan ausarta. Jaiotzez ondarrutarra izan arren,  
aspalditik Donostian bizi da Ana Urkiza.



**"Euro-western"**

• DONOSTIA KULTURA • Nosferatu zine aldizkaria • 41-42. Zenbakia

60ko hamarkadan Europan egindako western filmeen zikloa antolatu du Donostia Kulturak,  
eta honi dela eta, Nosferatu zine aldizkariaren ale bikoitza kaleratu dute. Zine genero  
honetan nabarmendutako zuzendari europarrei buruzko hamarka datu, ematez gain,  
argazki ugari eta artikulu interesgarriak dakartzu aldizkariak. Artikulugileen artean Jesus  
Palacios, Christiane Habich eta Pava Urquijo daude, besteak beste.



Kafea **RELOJ** Taberna  
*berri*  
Bulebarra 20 • Donostia • (943)42 97 09

**PARMA** hotela  
Hsaso durrean,  
Bainua, berogailua, telebista  
eta telefonoa gela guztietan.  
SALAMANCA PASEALEKUA 10 • TEL.: (943) 42 80 19

**El Andorrano**  
1860tik zurekin  
Alkandorak • Lentzeria  
Garibai, 11 • DONOSTIA - Tel.: (943) 420607

**BIAK**  
ELEKTRO MEKANIKA  
Kotxe konponketa  
Zurriola Pasealekua, 24  
Tel.. 943 27 56 60  
20002 DONOSTIA

# Aurrekontuak onartu ahal izateko, bide ika-mikatsua hartu du alkateak

**P**SE-EEK 2004rako aurkeztutako aurrekontu proiektua atzera bota zuen Udaltzarak asteartean, osoko zuzenketak aurrera egin baitzuen PPren eta EAJ-EAren aldeko botoekin. Hau ikusita, Odon Elorza alkateak konfiantza-galdea aurkezte erabaki du. Bide hau erabilita, aurrekontuak automatikoki onartzea lor dezake alkateak.

Konfiantza-galdea ostiralean, hilak 12, aztertu behar zuen Udaltzarak, baina ostegunean Madrilen izandako atentatua zelata, Udaltzara atzeratzea erabaki zuten eta datorren astean egingo dute, ziurrenik astelehenean, hilak 15. Udaltzara horretan alkatearen kudeaketa begi onez ikusten ote duten adierazi beharko dute zinegotziek. Oposizioko alderdiek Elorzaren kudeaketa babestuko balute, aurrekontuak onartu egingo lirake automatikoki. Aldiz, konfiantza ukatuko baliote, alkateak kargua utzi beharko luke, jarduneko alkate izaten jarraituko lukeen arren. Ondoren, kudeaketa babestu ez duten alderdiek zentsura-mozio bateratua aurkeztu eta beste alkate bat hautatu beharko lukete. Hilabeteko epean zentsura-mozioa aurkeztuko ez balute, ordea, Elorzak karguari eutsiko lioke eta aurrekontu proiektua automatikoki onartuko litzateke.


EAJ-EAK eta PPK esan dute ostiraleko udaltzaran ez dutela alkatearen kudeaketa babestuko, baina aldi berean, argi adierazi dute ez dutela zentsura-mozioa elkarrekin aurkeztuko. Beraz, ezustekorik ezean, hilabete barru, PSE-EEren aurrekontuak onarturik geratuko dira eta, jakina, Elorzak alkate izaten jarraituko du.

Nabarmentzekoa da Odon Elorzak hartutako bidea ez dela orain arte sekula erabili. 1999an Espainiako hauteskunde legeetan egindako aldaketa batzuk hartu ditu oinarritzat alkateak. Lege aldaketa horiek erabiltzeko ika-mika sortu du.

Elorzak adierazi duenez, bide hau hartzea beste aukerarik ez du izan: "PP eta EAJ aurrekontu alternatiboa eskaintzeko eta gobernua osatzeko gai badira, egin dezatela. Bestela, utz diezagutela guri".

## Oposizioaren kritika

Roman Sudupe EAJ-EA koalizioko bozeraileak esan duenez, berriz, "alkateak ez du ezer arriskatu. Izan ere, nahiz eta Odoni konfiantza ukatu, ez dugu PPrekin zentsura-moziorik egingo". Hala, "operazioa alde aurretik diseinatutako antzez-lana" dela uste du Sudupek. PPKo bozeraile Maria San Gilek "trikimailu legal-



tzat" jo du konfiantza-galdea. "Ez da gure etika politikoaren eskematan sartzen", gaineratu du. Duñike Agirrezabalaga EB-IUko bozeraileak ere ez du begi onez ikusi Elorzaren erabakia: "Galdea legezkoa da, baina ez da oso demokratikoa".

Bien bitartean, Baga-Boga plataformak osoko zuzenketa sinbolikoa egin dio 2004ko aurrekontuari: "Proiektua atzera botatzea eta prozesu parte hartzailea abiatzea eskatzen dugu, benetako edukin soziala duen aurrekontua egin, eztabaiatu eta onartu ahal izateko".

## MOKO eta KAPMELE

*mtz*

